

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuen bezeroa supermerkatu kate handiak izango dira. Hasteko, irizpide geografikoa aintzat izanez, uribekostaldean (Bizkaia) dauden supermerkatuetan eskainiko dugu gure produktua, eta geroago, gure produktua arrakastatsua denean, poliki-poliki Bizkaia osora zabalduko dugu eskaintza.

Bigarrenez, sektoreko irizpidea jarraituz, supermerkatuak direnez, hirugarren sektoreko enpresak izango dira gure bezeroak eta, noski, plastikozko ontziak erabiltzen dituzten enpresak.



Azkenik, eta garrantzitsuena, merkatua psikografikoki segmentatu dugu: enpresak gizarte erantzunkizun korporatiboa oso argia izan behar du, gizartearen ongizateaz arduratzen dena.